

Zerbaiti buruz ohartarazten duten gailuak daude:

***“Warning: Do not remove this cover – Kontuz: Ez kendu tapa hau”***

Eta gure burua tapa babeslea kendu ahal diezaiokegun gailu horietako bat balitz? Zer aurkituko genuke? Zein ezusteren aurrean egongo ginateke?...

“PSIKE” ikuskizuna aukera horretatik hasten da: buru handi baten irudia agertokian, eta barrura sartzea erabakitzen duen pertsonaia. Behin barruan, pertsonaia eta ikus-entzuleek paisaia magikoa, zirraragarria, surrealista... konpartituko dute.

Eta maparik eta brujularik gabeko bidaia hasiko da. Ahots-jokoak, dantza, eta zain dauden eta probokatzen ari diren izaki misterioitsuak. “PSIKE”, gure sakoneko inpultsuekin erlazionatuta dauden gertakarien etengabeko segida da. Desioak, beldurrak, minak edo plazerrak gure giza izaera osatzen duten benetako informazio eremua. Gu garela uste dugunaren eta guri buruz ez dakigunaren arteko konfrontazio gunea.

Markeliñe gauarekin jolasten da, kontraste handiko atmosfera soinudunak eta bisualak sortuz. Kein u bidezko interpretazioak, plataforma mugikorren erabilerak, dantzak, txotxongilo erraldoiek eta suaren magiak, beste baliabide batzuen artean, ikuskizun dinamiko, bizigarri, komiko, hunkigarri... bihurtzen dute “PSIKE”.

Proposamen oniriko eta aurreikusi ezinak sentazioen espiral bat sortzen du, eta horietan ikusleak bere burua ezagutzen du. Federico Fellini handiak zioen bezala: *“Gure arteak ispilu bat izan beharko luke, eta horren aurrean gure arima guztiz biluzteko ausardia izan beharko genuke”*.

## **SINOPSISIA**

Kaleko artista bat emanaldirako aurreikusita dagoen gunera helduko da eta bere frustrazioa eta haserrea erakutsiko ditu, ez duelako lortzenaintzatespena eta txaloak jasotzeko nahia.

“Buru handi” barrutik datozen barreek artistari iseka egiten diotela dirudi. Ahots probokatzaile horiek isilarazteko ahaleginean, artistak bere kontzientziaren mamuekin egingo du topo. Onirikoa arrazoiari gailentzen zaion bidaia zorabiagarrian lagunduko dioten izaki kontrolaezinak. Ustekabeko aldaketak dituen eta apurka-apurka ahultasun baten susmoa iradokitzen digun benetako abentura: definitzen gaituen baina gure kontroletik eta borondatetik kanpo dagoen barneko bizitza sekretu baten existentzia.

Azkenean, artistak bere txaloe lortuko du eta, agian, mugitzen gaituena hori dela aitortu beharko dugu. Besteek ezinbestean gu aintzatetsi beharra.

Gaueko kale ikuskizuna.

Formatu ertain-handia, helduentzat.

Iraupena: 60 min.

## **FICHA ARTÍSTICA:**

**Izenburua:**

**PSIKE**

**Gidoia eta zuzendaritza:**

**MARKELIÑE**

**Antzezle taldea:**

Fernando Barado

Gaizka Chamizo

Jon Koldo Vázquez

Itziar Fragua

Nerea Martínez

**Zuzendaritza teknikoa:**

Paco Trujillo

Jon Kepa Zumalde

**Zuzendaritza artistikoa:**

marieta soul estudio creativo

**Atrezzo eta osagarriak:**

marieta soul estudio creativo

Kurva S.L

**Eszenografía:**

Ingeniería y aventura

**Jantzien diseinua:**

Maite Hernández

**Koordinazioa:**

Iñaki Egiluz

**Diseinu grafikoa:**

Trupp Comunicación

**Produkzioa:**

Joserra Martínez